Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2925

16/2011 DEKRETUA, maiatzaren 10ekoa, Lehendakariarena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide bat aldatzeko dena.

Ekainaren 27ko 9/1997 Legeak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea arautu zuen. Lege horren 5. artikuluaren arabera, batzordeko kideak izendatzea Lehendakariaren eskumena da, nekazaritzako elkargoek beren ordezkariak aukeratu ondoren. Bestalde, lege horren 7. artikuluaren arabera, Kontseiluko kideen agintaldia lau urterako izango da; baina, hala ere, berriro ere aukeratu ahal izango dira.

Dena dela, batzordean ordezkari diren erakunde, korporazio edo entitateek titular edo ordezko izendatu dituzten pertsonak aldatzeko aukera dute; eta izendatu berria kargu horretan arituko da ordezkatutako pertsonak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean bete beharreko lau urteko epea igaro arte.

Lehendakariaren abenduaren 29ko 26/2009 Dekretuaren bitartez Batzordeko kideak izendatu ziren; eta apirilaren 26ko 7/2010 Dekretuaren bidez, bere lehendakaria. Aipatutako legearen 5. artikuluan 7.az ezarritakoa betetzeko, nekazaritzako elkargoek egindako izendapena aldatu dute.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Yolanda Urarte Alonso andrea Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide izendatzea, nekazaritzako elkargoek aukeratu ondoren, Unzalu Salterain Basagutxibeaskoa jaunaren ordez.

2. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 10ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

2925

DECRETO 16/2011, de 10 de mayo, del Lehendakari, por el que se renueva un miembro del Consejo Económico y Social Vasco–Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.

El artículo 5 de la Ley 9/1997, de 27 de junio, del Consejo Económico y Social Vasco–Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, atribuye al Lehendakari la facultad de nombrar a las personas que componen el Consejo en representación de las organizaciones agrarias una vez que aquellas fueran designadas por éstas, y el artículo 7, del mismo texto legal, establece que la duración del mandato de las y los miembros del Consejo será de cuatro años, sin perjuicio de su reelección.

No obstante, las organizaciones, corporaciones o entidades representadas en el Consejo podrán sustituir a las personas que hubieran designado como miembros efectivos o suplentes. La persona designada permanecerá en el cargo el tiempo que restare a la que sustituye, hasta el cumplimiento del plazo de cuatro años citado en el párrafo anterior.

Por Decreto 26/2009, de 29 de diciembre, del Lehendakari, se procedió al nombramiento de las personas que componen el Consejo, y por Decreto 7/2010, de 26 de abril, se nombró a su presidente. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 5, en relación con el 7 de la mencionada Ley, las organizaciones agrarias han modificado su designación.

En virtud de lo cual,

DISPONGO:

Artículo 1.– Nombrar a Dña. Yolanda Urarte Alonso miembro del Consejo Económico y Social Vasco–Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, designada por las organizaciones agrarias, en sustitución de D. Unzalu Salterain Basagutxibeaskoa.

Artículo 2.– El presente Decreto surtirá efectos desde el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 10 de mayo de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.